

BAGABILTZA

LHK-ko euskara-planaren buletina

Hemeroteka

BIZKAIA IRRATIAN 2020AN ALEXI EGINDAKO ELKARRIZKETA

“Gure helburua da negoziazio kolektiboan laguntza integrala ematea eragile sozialei: bai sindikatuei, bai enpresei, edo enpresa-elkarteetako buruei. Horixe izango litzateke helburu nagusia. Gero, helburu hori helburu zehatzagoetan gauzatzen da, baina garrantzitsua iruditzen zait helburu nagusia aipatzea, horixe bera dena: negoziazio kolektiboan laguntza eta sustapena ematea”.

“Epaitegietako prozeduretan, epaileak ematen du epaia, eta aukera gutxiago dago epai hori, alde bien beharretara, interesetara, egokitzeko. Normalean izaten dira irabazi ala galtzeko prozedurak, baina horietan ezin da bien onerako den irtenbide bat topatu, edo hor zailago topatzen da. Gure prozeduretan, PRECO prozeduretan, helburua izaten da aldeek protagonismoa edukitzea, eta alde batekoek jakinda zein diren beste aldearen interesak eta beharrak, ahalik eta irtenbiderik egokiena topatzea bien onerako izan dadin”.


“Negoiazio batean pertsonak daude atzean, eta haien balioak, noski, eta jarrera; eta hitzarmenak lortzeko, edo akordioak lortzeko gogoia. Baina horretan mami ona topatzen dugu. Gugana etortzen direnei erreparatuz gero, bai langileen aldeko ordezkarien partetik, bai enpresaburuen aldeko partetik, oro har jende egokia eta horretarako aproposa eta prest dagoena ikusten dugu”.



AHOTSAK

TAXIAK EGON BAINO LEHENAGO ZALDIA ERABILTZEN ZEN

Mirenen senarra taxi gidaria izan zen. Euren gazte sasoiaren oso taxi gutxi zegoen, hiru edo. Senarrak aitaren lekua hartu zuen. Orduan, taxiak gutxi erabiltzen ziren: emakumeak ospitalera umea egitera eramateko, kanpotarrak Zestoara eramateko... Taxiak egon baino lehenago, zaldia erabiltzen zuen Mirenen aitagarrebak jendea eramateko.



Josune Bengoetxea Duña

ALBISTE IZAN DA

2023ko
otsailaren 1a

enpresabIDEA

Aurrera doa Bizkaiko Metalgintzaren 2022-2025erako hitzarmena. Eusko Jaurlaritzaren bitartekari lana medio, lau urteko epean % 15eko soldata igoera onartu dute CCOOko, LABeko eta UGTko afiliatuek, KPIa berrikusteko klausularekin. Hiruak gehituta, gehiengo sindikala osatzen dute. Ostiralean bilera egingo dute, eta bertan aurreakordioa sinatuko dute FVEM patronalarekin, hark ere oniritzia eman baitio proposamenari.

ALBISTE OSOA

ZUTABEA

Tradizioa. Otsailak 3, San Blas eguna Abadiñon. Feria honetan ohikoa izaten zen abereen salmenta; gaur egun erakusketa bihurtu da. Honekin batera, abereekin egindako apustuak ikustea ere posible da. Idiak uztarritik elkartuta, idi bakoitza bere aldetik tiraka ikusten dudanean, pentsatzen dut gidaria zer garrantzitsua den, norabidea tinko mantentzeko, eta noizbehinka, uztarri baten gainean akuilua joz, bete beharreko erronka zein den argi gogorarazteko.

Horrela ikusten dut nik Lan Harreman Kontseilua. Enpresarien eta langileen eskaerak ezberdinak dira, batzuetan guztiz kontrakoak izan daitezke, baina hitzarmenen bitartez uztarri baten lotzen dira, eta horretarako norbaitek bidea erraztu behar izan du.

Beno, serioegi ere ez gara jarriko. Izan ere, gaur jakin dut azkena: globalizazioa herrikirolera heldu da, eta harrijasotzaileen artean, aurtengo txapelduna Letoniakoa izan da. Tradizioa?